

HITZAURREA

DOI: 10.1387/lan-harremanak.18410

Orain dela bi urte, hamalau irakaslek —hamaika Euskal Herriko Unibertsitatekoak (EHU/UPV) eta hiru Castelloneko Jaime I Unibertsitatekoak—, Olga Fotinopoulou Basurko irakaslearen koordinaziopean, Hezkuntza Berrikuntza Proiektu (HBP) bat aurkeztu genuen Unibertsitateko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE/HELAZ) egindako Hezkuntza Berrikuntzarako Proiektuen deialdian 2015-2017. Gure proposamena onartu zuten eta 2016-2017 ikasturtean martxan ipini dugu. Gure proiektuaren xedea, Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbidea irakasgaiari, podcast-a ikasteko tresna gisa erabiltzea zen.

Egindako lanaren ondorioak ikusirik —onak eta ez hain onak— gure esperientzia azaltzea erabaki dugu, modu horretan, beste irakasle batzuk esperientzia hori aprobetxatu dezaten. Gurearekin batera, Espainiako beste unibertsitateetan, Lan Harreman eta Giza Baliabideen Graduan, egindako esperientziak aurkezten dizkizuegu. Hori da gure monografikoaren izenburuaren arrazoa: *Hezkuntza Berrikuntza Lan Harreman eta Giza Baliabideen Graduan**.

Aurkezten dugun lehenengo artikulua izenburua «Otra manera de acercarnos al Derecho de Sociedades: el caso *Azcue vs. Azcue en busca de su segunda oportunidad*» da eta Elena Leñena Mendizabal irakasleak (UPV/EHU) Kasuaren Metodologian oinarritutako kasua aurkezten du. Ondoren, Elena Fernández del Río, Alfredo Berges Saldaña eta Pedro José Ramos Villagrasa irakasleek (Zaragozako Unibertsitatea) idatzitako artikulua topatuko dugu: «Érase una vez...»: la creación de historias como herramienta de aprendizaje activo en el Grado en Relaciones Laborales y Recursos Humanos». Lan horretan, istorioak asmatzea dela medio, ikasteko tresna aktiboa eskaintzen digute. Hirugarren esperientziak gaur egun sare sozialen artean aktiboenetakoa den twitter du oinarritzat. Patricia Nieto Rojas irakasleak (Madrileko Carlos III Unibertsitatea) aurkezten digu

* Ale monografiko hau HBP 25/2015-2017 (UPV/EHU) proiektuaren dirulaguntzari esker argitaratu dugu.

bere artikuluan: «La utilización de twitter como herramienta docente: su aplicación al Grado de Relaciones Laborales y Empleo». Hurrengo artikulua izenburua «La promoción del emprendimiento social mediante metodologías innovadoras: hacia un nuevo paradigma educativo» da eta horretan, Josune López Rodríguez irakasleak (Deustuko Unibertsitatea) gizarte ekintzailertan —eta baita ere heziketa arlokoetan— metodologia berritzaileek, duten garrantzia aipatzen du. Bosgarren artikuluan, «Prácticum y prácticas docentes: la intervención de los profesionales en la docencia», Juan Carlos Álvarez Cortés irakasleak eta Iluminada Ordóñez Casado doktoregaiak (Malagako Unibertsitatea) irakas-kuntza praktikoa erabiltzeko kalitatezko protokoloen sorrera xedezat duen esperientzia aurkezten dute. Ondoren, «Experiencia en metodologías activas: proyecto para las asignaturas Introducción a la Contabilidad y Contabilidad Financiera en el Grado de Relaciones Laborales y Recursos Humanos de la UPV/EHU» izenburua daraman artikuluan, Ainhoa Saitua eta Isabel Vázquez irakasleek (UPV/EHU) orain dela ikasturte batzuk martxan jarritako, eta gaur egun indarrean mantentzen duten, Proiektuaren Metodologian oinarritutako esperientzia azaltzen dute. Ekonomiaren digitalizazioak eta robotizazioak eskatzen dituzten formazio beharren berri ematea da «Las nuevas necesidades formativas en el marco de la digitalización y demás avatares 4.0 (la Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible como herramientas docentes)» izenburuarekin M.^a Gema Quintero Lima irakasleak (Madrileko Carlos III Unibertsitatea) aurkezten digun artikulua xedea. Eta amaitzeko, hitz hauek idazten dituenak podcast-a ikasteko tresna gisa erabiltzearen esperientzia aurkezten dizue «Los podcast como método de aprendizaje autónomo en el área de Derecho del Trabajo y de la Seguridad Social en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea» artikuluan.

Ikus daitekeenez, heziketa berrikuntzako zortzi proiektu dira eta horietatik, ziurrenik, gure irakaskuntzarako lagungarriak izango diren ideiak atera ahal izango ditugu.

Miren Edurne López Rubia